



## Urte osorako ikasgaia

**TOLOSALDEA** ▶ Autorik Gabeko Eguna  
egin zuten atzo eskualdeko hainbat herritan,  
aldarrikapenez eta ekintzez beterik

**LANEAN** ▶ Mugikortasun Iraunkorraren  
Asteko ekitaldiak izango dira oraindik,  
ingurumenaren alde lanean jarraitzeko ▶ 2-3



**Tolosa.** Arratsaldean, aisialdirako tartea izan zuten etxeko txikienek Tolosako Plaza Zaharrean eta Andra Mari plazan; era guztietako jolasak, tailerrak, liburutegia... izan zuten aukeran. N. LATABURU



**Anoeta.** Denok ikastolara oinez edo bixirindaz! deialdia egin zuten; ikastolakoak plazan elkartu ziren, ikastetxera bizikletaz joateko. HITZA



**Villabona.** Zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa eta bizikleten erabilera, besteak beste, neurtu zituzten goizean. N. LIZARTZA



**AZKEN  
ESKAINNTZA**  
%50 - %60  
%70eko  
**BEHERAPENA**

IRURA ▶

**Herensugearen  
etorrerarekin hasiko  
dira gaur sanmielak**

Urriaren 2ra arte jaietan murgilduta  
izango dira irurarrak, gau eta egun ▶ 4

AUTORIK GABEKO EGUNA ▶

# Urte guztian bete beharrekoa

Europako Autorik Gabeko Egunaren harira makina bat ekitaldi antolatu zituzten eskualdeko hainbat herritako ikastetxek eta Udalek; haatik, ez zuten nahi adina oihartzunik lortu herritarren artean



Tolosa. Lanera, nire kotxerik gabe aldarrikatu zuten herriko ikastetxeetako gazteek atzo goizean. NEREA LIZARTZA

N. LIZARTZA-N. LATABURU

Mugikortasun Iraunkorraren Astea dela eta, Europa osoko hainbat lekutan egiten da Autorik Gabeko Eguna. Eskualdean ohi bezainbeste auto zebiltzan, baina aldarrikapenak eta ekitaldiak, behintzat, ez ziren falta izan egun osoan Tolosaldean.

Atzo egun osoan eskualdean egon ziren ekitaldietako parte-hartzaileak leialenak gaztetxoak izan ziren; goizean goiz irten ziren kalera eta egun osoa iraun zuen beren aldarrikapenak. Tolosan goizean goiz hasi ziren ekitaldiak. Ikastetxez ikastetxe lekukoa pasatu zuten Lanera, nire kotxerik gabe leloa lau haizetara aldarrikatzeko. Goiztiarrenak Samaniego ikastetxeetako izan ziren, eta ondoren Hirukidek eta Laskorain Ikastolak hartu zuten lekukoa. Festa giroan zebiltzan guztiak Tolosako kaleetan zehar; txarangaren doinuekin dantzan ibili ziren, beti ere, aldarrikapena garbi utziz. Arratsaldean, berriz, aisirako tartea izan zuten Plaza Zaharrean eta Andra Maria Plazan, ekintza ezberdinekin.

Irurak goizeko bederatzietan irakasleek pixkanaka-pixkanaka haurrak oinez gerturatu zituzten ikastolara. Ondoren, neurketak egin zituzten, hala nola, autoek ateratzen duten zarata, airearen kutsadura maila, herrian egon ohi den trafikoa, ibilgailuen okupazioa... Arratsaldean Autorik Gabeko Eguna gaitzat hartuta, mural bat marraztu zuten herriko ikastolako ikasleek. Bestalde, Irurako plazarako sarrera itxita egon zen ibilgailuentzat egun osoan; modu honetan, egunean zehar autoan ez ibiltzea bultzatu zuten.

Villabonan, berriz, Fleming ikastetxeak egindako neurketa izan zen nagusi. Goizeko hamar eta erdiak aldera Fleming ikastetxeko LHko seigarren mailako ikasle talde bat kalera irten zen zarata neurtu asmoz. Herriko hiru lekutan egin zituzten neurketak: Hiru Aldetako bigerurutzean, elizaren parean eta herriko plazan. Leku bakoitzean hamar minutuz egoten ziren, eta denbora horretan zenbat auto pasatzen diren eta bakoitzak ateratzen duen zarata neurtu zituzten sonografo batekin. Zaratarik handiena elizaren parean neurtu zuten

## Tolosako Mugikortasun Iraunkorrerako plana

**N. Lataburu** ▶ LEBER-ek Tolosako Mugikortasun Iraunkorrerako planaren proposamenen aurkezpen ekitaldia burutu zuen herenegun arratsaldean. Mugikortasun Iraunkorraren Astearekin bat eginez. Bertan orain arteko garapena aztertu eta datozen urtetarako proposamenen berri eman zuten.

Azken urteotan eginiko azterketen ondorio batzuk jakinarazi zituzten. Hauek dira batzuk: Tolosako biztanlegoak behera egin du, %4 azken urteetan, baina familia kopuruak %29 egin du gora (familiak gero eta txikiagoak direlako). Beraz, mugikortasunak gora egiten du; izan ere, bidaien kopuruak familien araberakoa da, ez

pertsonen araberakoa. Hala, auto gehiago daude, %68ko hazkuntzarekin. Herriko barne mugikortasunak, ordea, behera egin du. Egund, lanera joateko mugitzen direnek osatzen dute egunean egiten diren bidaien erdia; dena den, Tolosak oinezkoen mugikortasun baikorra du, Gipuzkoan dagoenaren gainetik eta bereziki babestu beharra dagoela azpimarratu dute.

Lau estrategia aurkeztu zituzten: motorrik gabeko joan-etorriak indartu, autoaren eragin txarrak arindu gune publikoetan, autoari alternatibak sustatu eta etxebizitzaren eta lantokiaren arteko erlazioa orekatu.

Hau guztia lortzeko, jarraitu

beharrekoak ere azaldu zituzten txosten batean. Batetik, Tolosako trafikoa arindu, oinezkoen lehentasuna emateko, hauentzat zonalde babestuak eraikiz. Bestetik, leku publikoetan eta ekitaldi gehien izaten diren lekuen arteko lotura egokia lortzea. Oinezko gehien dabilten lekuetan autoak ez ibiltzearen beharra ere aipatu zuten. Halaber, autoan egiten diren baina oinez egin daitezkeen ibilbideak oinezko bihurtzea. Garraio publikoaren erabilera bultzatzea, geltokietara ailegatzea erraztuz. Trafiko ingeneriazko neurriak martxan jartzea. Leku publikoak indartzea eta autoak aparkatzeko plana zehaztea.

Herrian zehar eraikiko den

oinekoentzako sarea ere azaldu zuten. Hau aurrera ateratzeko hainbat puntu hartu dituzte aintzat: Tolosako gune garrantzitsuenak lotzea, oinezkoak babestuko dituen sarea osatzea eta bertan autoen sarrera debekatzea, esaterako. Honekin batera, barne trafikoa arintzea ere ezinbestekoa litzateke, auto eta oinezkoekin istripuak murrizteko, txirindulariei lekua egiteko, eta kutsadura akustikoa gutxitzeko.

Guztien gainetik, oinezkoari lehentasuna ematearen garrantzia azpimarratu zuten; izan ere, «denok gara oinezko, bai garraio publikoaren erabilzaileak bai eta auto gidariak ere». ◀



Anoeta. Hotzari aurre eginez bixrindan joan ziren ikastolara. HITZA



Tolosa. Umeek ederki igaro zuten arratsaldea jolasean. N. LATABURU

eta gutxiena, berriz, plazan. Hala ere, Autorik Gabeko Egunean egoten den zarata egun arrunt batean egoten denarekin neurtu nahi dute aldea ikusteko; beraz, datorren hilaren 30ean ere kalera irtengo dira gauza bera egitera. Pozarren aritu ziren gaztetxoak irakasle baten laguntzaz, autoek herriko hainbat puntutan ateratzen duten zarata neurtzen.

Anoetarrek ere berea egin zuten; goizean goiz plazan egin

zuten topo ikastolako hainbat ikaslek, ikastolarako bidea oinez nahiz txirindaz egiteko. Ondoren, Haur Hezkuntzako ikasleentzat ginkana antolatu zuten, Oriako txirindulari eskolakoek antolatuta. Arratsaldean, diaporama emanaldia izan zuten.

Beste herriek ere egin zuten bat ekimen honekin, Asteasu eta Zizurkil, esaterako. Lehenengoan, LH1-2ko ikasleek muralak marraztu zituzten, eta



Villabona. Flerin eskolakoak zarata neurtzen. NEREA LIZARTZA



Irura. Plazarako sarrera debekatuta egon zen autoentzat. NEREA LIZARTZA

neurketak ere burutu zituzten —zarata, airea, trafikoa, ibilgailuen okupazioa, bizikleten erabilera...—. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak irrati-ko esatari bilakatu ziren egun batez Txolarreko uhinetan. Arratsaldean, berriz, Joxean Azkuek eta bere lagunek Munich-Suiza bidaiaren inguruko diapositiba emanaldia eskaini zuten.

#### Datozen egunetan, jarraituz

Atzo Mugikortasun Iraungorren Asteko egun nagusia izanagatik, datozen egunotan ere beste hainbat ekintza izango dira gurean. Tolosan, esaterako, Carmen Miralles Bartzelonako Eskualde eta Metropoli ikasketen institutuko zuzendariaren hitzaldia izango da en-

tzungai, udaletxeko batzar areretan, *Mugikortasuna generoaren ikuspuntutik* izenpean, 11:00etatik aurrera. Iruran datorren asteko lehen hiru egunetan bereziki haurrei txirinda erabiltzearen garrantziaren gaineko ekitaldiak izango dira. Asteasun eta Villabonan ere burutuko dituzte neurketak ikasleek.

Ingurumenaren aldeko apustua egitea garrantzitsua da eskualdean zein mundu mailan. Hala ere, teoria hutsean geratu ohi dira aste honetarako. Atzokoan ere autoen zaratak eta hotsak euren egunerokotasunean jarraitu zuten. Ez luke, beraz, egun bakarerrako ekimena izan behar, urte guttian zehar landu beharreko baizik, ingurumenaren alde lanean jarraitu ahal izateko.

#### TOLOSA ▶

### Zeinu hizkuntza lanteria eta erakusketa

Bihar zeinu hizkuntzaren lanteria eta erakusketa egongo da Tolosako Kultur Etxean. Helburua komunikazio oztopoen gainean solasean aritzea da. Hitzordua 10:00etatik 14:00etara da.

#### VILLABONA ▶

### IKT-ko igeriketa ikastaroan parte hartzeko deialdia

Denboraldi berriari begira, Tolosaldea IKT-k guraso guztiak animatu nahi ditu 6 eta 10 urte bitarteko seme-alabek Olaederra kiroldegian burutuko diren igeriketa eskolatan izena eman dezatela. Ikastaroetan gaztetxoek igeriketako lau estiloak menperatuko dituzte. Izena eman edo informazio gehiago nahi dutenak 667 631 742 telefono zenbakira dei dezakete, astelehenean ostiralera, 09:00etatik 13:00etara.

#### TELEFONOAK ▶

#### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- #### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarano autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- #### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

IRURA ▶ JAIK

# Jaietan murgiltzeko prest

Herensugearen etorrerarekin emango diete irurarrek hasiera gaur arratsaldean San Miguel jai

IMANOL GARCIA

San Miguel jaietako hasiera eman- go diete gaur Iruran herensu- gearen etorrerarekin. Aurten bigarren aldia izango da hasie- ra ekitaldia egiten dutena: eli- zatik abiatuko da herensugea udaletxeko balkoiraino.

Egitarau oparoa antolatuta du Jai Batzordeak, adin guztiei zu- zendua. Bi asteburu eta tarteko egunak hartuko dituzte jaiak. Kontzertuei dagokienez, talde ezagunek emanaldiak eskaini- ko dituzte. Nabarmentzekoa da Banda Basotti taldearena, bes- teak beste. Baina italiarrez gain, hauen aurretik ariko di- ren A Matraca Perversa galizia- rrak, Tapia eta Leturia, Juan Mari Beltran eta Mal de Ojo tal- deen kontzertuak ere ikusi eta entzun ahal izango dira. Erro- meriak ere izango dira, eta bai- ta DiskoTop disko-festa ere.

Sanmielelan ere badaude beste ekitaldi garrantzitsuak. Esaterako, herriko jendeak egiten duen *play-back* jaialdia oso arrakastatsua izaten da. Ezkonduen egunak, dantza-so- karekin eta ondorengo bazka- riarekin, jende ugari biltzen du. Sagardo dastaketa ere ez da atzean gelditzen, eta hamar sagardotegiren zuku goxoa dastatzera erruz hurbiltzen dira herriarrak. Ikuskizunak ere izaten dute beren tarte- a, eta aurten quad erakustaldia izango da.

Berritasunik ere izango da, zikiro afaria egingo baitute le- henengo aldirerian. San Mi- guel bezperan izango da. Hori bai, aurretik txartelak erosi be- har dira. Jaiak ere aprobetxatu- ko dituzte Kulturguneko berria- ren inaugurazioa egiteko. Hala ere, ekitaldi herrikoiena gaur gaueko barrikotea izango da. Heldu, gazte, zein haur elkar- tzen da etxetik afaria erama- nez. Udalaren kontu izaten da edaria.



Banda Basotti Italiako taldea (ezkerrean) eta Mal de Ojo euskaldunak izango dira sanmielelan kontzertuak emango dituzten taldeetako bi. HITZA

## EGITARAUA ▶

### GAUR

**19:00.** Jaietako hasiera: Herensugearen etorrera Zubietako joaldunekin, suziria, alkatearen agurra, eta kalejira buruhandi eta erraldoiekin.  
**19:30.** Xare partidak trinketean: lehenengo partidari Behar-Zana elkarteak Ametsa elkartearen aurka; bigarrenengo partidari Euskal Herriko Pilota Kopako finala.  
**21:00.** Barrikotea, plazan.  
**24:00.** Tapia eta Leturia plazan.

### BIHAR

**11:00.** Marrazki lehiaketa txikienezkat, plazan.  
**12:00.** Patata-tortilla lehiaketa 10 urtetik gorakoentzat, plazan.  
**13:30.** Gazteen dantza-soka plazan. Ondoren, haur eta gazteboen bazkaria bertan.  
**14:30.** Gazteen bazkaria Aizpurua jatetxean.  
**15:00.** Haurrentzako ludoteka eta tailerrak trinketean.  
**17:30.** Kiki, Koko eta Moko pailazoan *Alaitso* ikuskizuna, Loatzo plazan.  
**17:30.** Gazteen jokoak Kale Nagusiko beheko plazan.  
**19:30.** Sagardo dastaketa plazan, trikitalarien doinuez girotua.

**23:30.** DiskoTop disko-festa plazan, DJ Kamel-en eskutik.

### IRAILAK 25, IGANDEA

**11:00.** Meza nagusia Mikel Goi Aingerua parrokiari. Ondoren, dantza-tailerra, Torrelleseko eta Irurako dantzari eta irakasleekin.  
**12:30.** Gorritiren abereak plazan.  
**17:30.** Dantza emanaldia frontoian: Kataluniako Torrelles de Llobregat herriko L'esbart San Marti taldeko dantzari txikiak, Irurako dantzari taldeko handienekin, eta Euskal Herri mailako fandango eta arin- arina dantzari bikote batekin.  
**18:30.** Herri kirol erakustaldia frontoian: Arrospe eta Olasagasti aizkolariak eta Aimar Irigoien eta Miren Urkiola harri-jasotzaileak.  
**20:00.** Juan Mari Beltranen *Arditurri* emanaldia, plazan.

### IRAILAK 27, ASTEARTEA

**17:00.** Jubilatuen jokoak plazan eta Zaharren Biltokian.

### IRAILAK 28, ASTEAZKENA

**19:00.** Kalejira Loatzo Musika Eskolako bandarekin eta buruhandi eta erraldoiekin.

**19:30.** Kulturunearen inaugurazioa Peio Arreseigor kaleko eraikinean.  
**21:00.** Zikiro-jatea plazan. Afalostea Berriketan taldeak alaituko du. Afarirako txartelak alde aurretik erosi behar dira.

### IRAILAK 29, OSTEGUNA

**San Miguel eguna.**  
**09:00.** Goiz eresia txistulariekin.  
**11:00.** Herriko zaindariaren omenezko meza nagusia. Ondoren, dantzari txikien saioa plazan eta hamaiketako Loidisaletxe eta Zeberio bertsolariekin, Gazte Alaiak elkartearen eta plazan.  
**18:00.** Irura, Zizurkil, Villabona, Ibarra eta Anoeta herrietako dantzarien saioa.  
**20:30.** Keltiar Aldea folk taldea, plazan.

### IRAILAK 30, OSTIRALA

**19:00.** Kalejira buruhandi eta erraldoiekin plazatik aterata.  
**19:30.** Txistor-jatea Xare Elkartearen aurrean.  
**22:30.** *Play-back* jaialdia frontoian.  
**00:15.** A Matraca Perversa eta Banda Basotti taldeak, doan, plazan.

### URRIAK 1, LARUNBATA

**11:00.** Haur parkea gaztelu puzgarriekin eta jokoekin, plazan.  
**12:00.** Pilota eskolako haurren arteko xare eta pala partidak Ametsa trinketean.  
**13:30.** Ezkonduen dantza-soka plazan.  
**14:00.** Apar-festa plazan.  
**14:30.** Ezkonduen bazkaria Aizpurua jatetxean. Ludoteka zerbitzua izango da. Horretarako aurretik izena eman behar da.  
**16:30.** Haurrentzako parkea plazan.  
**17:30.** Herri kirolak haurrentzat plazan.  
**19:30.** Acroquad quads-ekin ikuskizuna Etxezarreta kalean.  
**23:30.** Mal de Ojo taldearen kontzertua plazan. Ondoren, herensugea erretzea plazatik abiatuta, eta gaupasa Triki Truku taldearekin.

### URRIAK 2, IGANDEA

**12:00.** Meza nagusia abestia: Perossi-ren *II. Pontifikala*.  
**14:30.** Jubilatuen bazkaria Zaharren Biltokian. Ondoren, jokoetako sarien banaketa eta dantza jaialdiaren abiatzea goiztan bertan.

**estreinaldia**  
**estreno** **23** irailak **de septiembre**  
**Donostian 25ean**

# Aupa Etxebeste!

"...Gu baño hobeto bizi dana putakume galanta!" Patrizio Etxebeste

"...Un hombre sin dinero es un cadáver andante!" Luziano Etxebeste

**Euskaraz** (subt. castellano)  
Donostian Principe eta Antiguu Berri Arrasaten Amaia Irunen Oscar Zarautzen Modelo Bilbon Renoir Basaurin Bilbondon Gasteizten Guridi

**Castellano** (doblado)  
Bilbao Multis Barakaldo Max Ocio Vitoria Florida

**▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Parte hartzeko aukerak.**  
HITZAK webgunea berritu du, eta orain irakurleek aukera gehiago dituzte parte hartzeko. Ohiko eztabaidez eta inkestez gain, albistei buruzko iritzia emateko aukera dago, eta baita inguruko albisteak sartzeko ere, *Zeuk Idatzi* atalean.

VILLABONA ▶ IKASTAROA

# Dantza, Oinkariren eskutik

Euskal dantzak eta fandangoa nahiz arin-arina ikasi ahal izango dira

JULEN GOIKOETXEA

Oinkari dantza taldeak bi ikastaroetarako aukera eskaintzen du. Euskal dantzena da bat, eta fandango eta arin-arinarena bestea. Lehena, 3 urtetik gorako haur eta gaztetxoei zuzenduta dago, eta matrikula ekainean itxi bazen ere, jendearen eskakizuna dela-eta berriro irekitzea erabaki dute dantza taldeko arduradunek. Ikastaroak hamar hilabeteko iraupena izango du, urritik uztailera, hain zuzen ere.

Beste ikastaroa, fandango eta arin-arinarena, adin guztietako jendeari irekia dago, eta hilaren 29an hasiko da. Entseguak ostegunero burutuko dira, 20:30etik 21:30era, Txermingo ikastolako ganbaran.

Alpatzekoa da bi ikastaroetako izen-ematea hilaren amaieran itxiko dela, eta horretarako 3 bide daudela: harre-



Taldekoak, ekitaldi batean. HITZA

manak@oinkari.net helbidean, 660 13 93 80an eta Txermingo ikastolako ganbaran, asteartean 18:30etik 22:30era, eta ostiralean 19:30etik 22:00etara.

ASTEASU ▶ ZIKLO-KROSA

## Ziklo-kros lasterketa haurrentzat Lamiategin

Bost mailatan banatuta ariko dira gaztetxoak, 16:30etik aurrera

ERREDAKZIOA

Txirindulari profesionalen pare ibili ahal izango dira gaur arratsaldean herriko gaztetxoak. Izan ere, ziklo-krosean aritzeko aukera izango dute 16:30etik aurrera. Bost mailatan banatuta burutuko dituzte lasterketak, eta kategoria bakoitzeko bi txanda jokatu diko dira.

Gaztetxoenen mailan 5 eta 6 urteko haurrak ariko dira, eta zirkuituari bi itzuli eman beharko dizkiote txanda bakoitzean. Ondoren, 7 eta 8 urtekoen txanda izango da, eta horiek ere bi itzuliko lasterketa izango dute. Jarraian, nesken txanda

izango da, eta beste bi itzuli emango dizkiote zirkuituari. 9 eta 10 urtekoak izango dira hurrena lehiatuko direnak. 3 itzuli eman beharko dizkiote ibilbideari. Azkenik, 11 eta 12 urtekoen txanda izango da. Nagusienak izaki, ibilbiderik luzean egin beharko dutenak izango dira; lau itzuli eman beharko dituzte.

Antolatzaileek parte-hartzaile guztientzat kaskoa derrigorrezkoa izango dela adierazi dute. Izen-ematea Lamiategiko soroan bertan egingo da. Horretarako 16:00etan azaldu behar da, lasterketa hasi baino ordu erdi bat lehenago, hain zuzen ere.

BIDEGOIAN ▶

## Asteburuan 2. jardunaldia dute Aurrera Saiazeok

Gaur Bidanian eta bihar Tolosako Beotibarren jokatu dituzte partidak

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Kluben Artekoan, bigarren jardunaldiko partidak jokatu dituzte asteburuan Aurrera Saiaz elkartek. Gaur bertan, 19:30ean, 4 partida ikusteko aukera izango da Bidaniako pilotalekuan. Lehen partidari, kadeteen bigarren mailan, Aurrera Saiazeoko De la Sotilla eta Dorronsorok, Añorgakoen aurka jokatu dute. Bigarren lehiari, maila bat goragoko kadeteek, Aurrera Saiazeoko bikoteak Andazpekoen aurka neurtuko dituzte indarrak. Ondoren, gazteen lehen mailan, Aurrera Saiaz-eko Mugikak Arrasateko talde ordezkariekin aurka jokatu du eskuz banaka. Azkenik, gazteen 2. mailan, Irazusta eta Errazki Urnietako taldearen aurka lehiatuko dira.

Bihar, Tolosako Beotibarren jokatu dute partidak, eta guztiak senior mailakoak izango dira. Lehen partida, 3. mailakoa, Aranzabek eta Senperenak jokatu dute Anaitasunakoen aurka. Jarraian, maila berean, Aspe eta Orbegozok Aretxabaletako bikotea izango dute aurrean. Azkenik, 2. mailan, Olaetxeak eta Huartek Lazkao 2ren aurka jokatu dute.

Asteazkenean jardunaldiko lehen partida jokatu zen, eta Renobales eta Zapirain 22-5 nagusitu ziren Lazkao 1en aurka.

VILLABONA ▶



## Jubilatuena abilezia sukaldean

Imanol Garcia ▶ Villabonako jubilatuen beren astea ospatzen ari dira. Atzo arratsaldean, argazkian ikusten den bezala, marmitako lehiaketa izan zuten. Sei partaide aritu ziren sukaldari lanetan: Epi Matxinea, Ilda Pita, Alberto Alonso, Julio Alonso eta Vicente Barcina; horietako batzuek laguntzaile eta guzti. Lehiaketaren ondoren, prestatutako marmitakoa dastatu ahal izan zuten bazkideek elkarrekin bertan. Gaur, hitzaldia eta mahai jokoa izango dituzte. Ramon Garate sendagilea ariko da hizlari 17:00etatik aurrera; eta ondoren, 19:00etan, mus, tute, eskoba, seiko urrea eta txintxon karta jokoen finalak izango dituzte. Asteburuko ekitaldiekin amaituko da Biltzikoez antolatutako astea. I. GARCIA

ANOETA ▶



## Erniora, aldarrikapena eginez

Julen Goikoetxea ▶ Joan zen igandean Erniora aldarrikapen irteera egin zuten Anoetako hainbat lagunek. 30 herritar bildu ziren ibilaldia egiteko eta aldarrikapenak Ernioraino igotzeko asmoz. Bertan parte hartu zutenek adierazi dutenez, egun-pasa eder bat egin zuten, eguraldia lagun, eta Zelatunen bazkaldu ostean, 18:00ak aldeira itzuli ziren Anoetara. HITZA

**Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutzen al duzu?**

Bai Euskarari Ziurtagiriaren bitartez, 600 enpresa, kateak, dendak, jabetak... eta era guztietako eritate berrak gehiagik euskararekin duten konpromisoa adierazten dute.

[www.bai.euskarari.org](http://www.bai.euskarari.org)

**Bai Euskarari Ziurtagiria!**

**902 430026**

**Aintzat hartu euskararekin konprometitzen dena!**

**hitza**

## IBARRA ▶ KIROLAK

# Ikastaroen eskaintza zabala Belabietan

Adin guztiei zuzendutako ikastaroak antolatu dituzte; aurtengo berrikuntzak pilates eta spinning-a dira

## IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako Udalak 2005-2006 ikasturteari dagozkion kirol ikastaroak aurkeztu ditu. 4 urtetik gorakoentzat izango dira, eta urte osoan jarduerak bat edo gehiago ikasteko eta praktikatzeko aukera emango dute. Izen-ematea hilaren 30a baino lehen egingo da Belabietan kiroldegian, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 22:00etara. 943 67 15 44 telefono zenbakira deitu ahal izango da informazio gehiagorako.

### 3. ADINEKOENTZAT GIMNASTIKA

#### Ordutegia.

▶ Astelehena eta osteguna: 09:00.

#### Prezioak.

▶ Doan bazkide eta ez bazkideentzat.

### MANTENU FISIKOA HELDUENTZAT

#### Ordutegia.

▶ Asteartea eta osteguna: 19:30.

#### Prezioak.

▶ Hiru hilabete (bazkideak): 48 euro.

▶ Hiru hilabete (ez bazkideak): 78 euro.

### AEROBIKA HELDUENTZAT

#### Ordutegia.

▶ Astelehena eta asteazkena: 19:30; 20:30.

▶ Asteartea eta osteguna: 09:35; 20:30.

#### Prezioak.

▶ Hiru hilabete (bazkideak): 48 euro.

▶ Hiru hilabete (ez bazkideak): 78 euro.

### AEROBIKA UMEENTZAT

#### Ordutegia.

▶ Asteartea eta ostirala: 17:30.

#### Prezioak.

▶ Hiru hilabete (bazkideak): 48 euro.

▶ Hiru hilabete (ez bazkideak): 78 euro.

### YOGA

#### Ordutegia.

▶ Astelehena eta asteazkena: 10:45; 18:15.

▶ Asteartea eta osteguna: 15:15.

#### Prezioak.

▶ Hiru hilabete (bazkideak): 78 euro.

▶ Hiru hilabete (ez bazkideak): 108 euro.

### SPINNING

#### Ordutegia.

▶ Astelehena eta asteazkena: 15:30; 19:30; 20:30.

▶ Asteartea eta osteguna: 09:30; 15:30; 19:30; 20:30.

#### Prezioak.

▶ Hiru hilabete (bazkideak): 81 euro.

▶ Hiru hilabete (ez bazkideak): 111 euro.

### PILATES

#### Ordutegia.

▶ Astelehena eta asteazkena: 09:30; 16:15; 17:30.

▶ Asteartea eta osteguna: 10:45; 16:15; 18:15.

#### Prezioak.

▶ Hiru hilabete (bazkideak): 168 euro.

▶ Hiru hilabete (ez bazkideak): 198 euro.

## IBARRA ▶ GIZARTEA

## Kilometroetara joateko autobusa

Urriaren 2an Eskeriatan egingo den Kilometroak festara joateko autobusak antolatu ditu Ibarrako Gazte Asanbladak. Izena emateko Zubiaurre eta Karlatz tabernetan daude zerrendak, eta 5 euro ordaindu beharko dute Ibarrako ikasle eta langabetuek eta 8 euro gainerakoek. Izena ematean ordaindu beharko da.

## LEABURU ▶

## Podologo zerbitzurako izen-ematea

Udaletik jakinarazi dute podologia zerbitzua jaso ahal izateko ondorengo telefono zenbakietara deitu beharko dutela bertako herritarrek ordua hartzeko: 653 70 04 86 (Oroitx) eta 658 74 92 37 (Arantxa). Podologoak normalean hileko bigarren astearen etortzen dira, Leaburura asteartean eta Txaramara asteazkenean. Bestalde, gogoratu ezintasuna duten pertsonen zerbitzua etxean bertan jaso ahal dutela.

## LEABURU ▶

## KZgunea erabiltzeko ordutegia

KZgunea udaletxe ondoan lehen taberna zegoen tokian dagoela jakinarazi du Udalak. Interneten doan nabigatzeko aukera izango da bertan dauden ordenagailuen bitartez. KZgunearen ordutegia ondorengo izango da: astelehenetik ostiralera, goizez, 09:00etatik 13:00etara; eta ostegunetan, arratsaldeztatik, 18:00etatik 20:00etara. Goizetan KZgunea erabili nahi duenak giltza udaletxean eskatu beharko du.

## ALEGIA ▶ KULTURA

## Bi abesbatzak hasi dira lanean

Txintzarri Txiki eta Txintzarri abesbatzak hasi dute ikasturtea. Txikiak gaur izango dute lehenengo entseguia 19:00etan Alegia Kultur Etxean. Bertan parte hartu nahi duten guztiek bertara azaldu beharko dute. Idoina Iraola tolosarrak zuzentzen du abesbatza eta zinemako musikari, kantu afrikarrak, koreografia duten kantuak... lantzen ditu. Txintzarri abesbatzak, berriz, dagoeneko hasi ditu entseguak; asteartean eta ostiraletan egin ohi ditu, 21:00etatik aurrera. Bestalde, igande honetan 11:00etan Txintzarri abesbatzaren emanaldia izango da Lizartzako elizan, Kaxianoren omenezko ekitaldien baitan.

## LEABURU ▶

## Euskal dantza eta gimnastika urritik aurrera

Leaburu-Txaramako Udaletik azaldu dute urritik aurrera bi ikastaro antolatuko dituztela, euskal dantza eta gimnastika. Ikastaro horietan izena eman nahi duenak udaletxera deitu beharko du goizetan, 943 67 59 31 telefono zenbakira. Bestalde, jendearen proposamenak jasotzea gustatuko litzaiekeela adierazi dute; sukaldaritza, eskulanak... bezalako ikastaroak egin nahi dituenak udaletxera deitu beharko du.

## IBARRA ▶

## Alurr-ekoak Hazparden Dantzari Egunean

Alurr dantza taldekoak bihar eta etzi Hazparden izango dira, Dantzarien Egunean. Euskal Herriko hainbat dantza taldeekin batera ariko dira Ibarrako dantzariak, 12 koreografia jendaurrean azaltzen. Bestalde, dantza taldea buru-belarri ari da datorren urriaren 2tik 8ra egingo duten 10. urteurreneko Kultur Astea antolatzen. Dantza saioak, argazki erakusketa eta bideo emanaldia izango dira, besteak beste.

## Berrikuntzak: pilates eta spinning

Pilates teknika gero eta zabalduagoa dago inguruko kirolarien artean. Garai batean jende aberatsarekin identifikatzen bazen ere, egun edonork du kirol hau praktikatzeko aukera. Askotan dira pilates metodoaren berri dutenak, bere praktika nola burutzen den jakin gabe. Pilates mugimendu kontrolatuetan oinarritzen den gorpuzteknika da, burua, gorputza eta izpiritua biltzen dituen. Ariketak mugimendu egokien bidez egonkortu eta arnasaren bidez koordinatzen dira. Metodo hau oso onuragarria da organismoaren erdiko gunea indartzeko; dena den, gorpuzteknika ez da bakarrik diren beste



Pilates teknika. HITZA

funtzioak ere betetzen ditu, giharren indarra eta erresistentzia handitzea, mugimenduen koordinazioa eta kalitate hobetzea, malgutasuna hobetzea, tentsioa eta estresa murriztea, esaterako.

Pilates praktikatzeko printzipioen artean kontzentrazioa

kontrolatzea, onkortasuna, ariketen zehaztasuna, malgutasuna eta arnasketa zehatza burutzea azpimarratzen dituzte adituek.

Spinning-a, berriz, bizikleta estatikoaren gainean eginko entrenamendu motari deritza, Johnny G. triatletak asmatu-koa. Kirol hau maila bakoitzari egokitzen da, eta praktikatzeko ari den pertsonaren ahalmen fisiko eta mentalak garatzen ditu. Spinning eskolak musikaren laguntza ematen dira, kirolarietako erritmo aldaketak interpretatzeko eta pedalei noiz eta zenbatero eragin jakiteko baliagarria suertatuko zaizena. ◀

## iragarki laburrak ▶

#### LANA

Emakumea. Emakume euskalduna eta kobearrekin behar da arratsaldeztatik. Deitu gaur: 943 11 72 85.

#### Tabernaria.

Neska euskalduna behar da taberna batean lau orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 675 701 178 telefono zenbakira.

#### Sukaldaria.

Asteburuetarako eta opporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

#### GALDUTAKOAK

Txakurra. Setter ingeles arrazako txakurra galdu da Berastegin. Aurkitu duenak dei dezala 656 72 17 52 telefono zenbakira.

**Kontsu Taberna**  
**OREXA**  
**MENU BEREZIA**  
**943 68 21 54**

ARESO ▶ EHIZA

# Azken aukera dute Aresoko uso postuak hartu nahi dituztenek

Gaur 19:00etan bukatzen da sexteorako epea; bihar eginen dute behin betiko enkantea hobekuntza jasan dutenekin

JAIONE ASTIBIA

Gaur-biharretan erabakita geldituko da aurtengo ehiza denboraldiaren enkantean jarri dituzten uso postuen esleipena, behin betikoa.

Lehen larunbatean egin zuten enkantearen aurreneko zatia: postuak aurkeztu eta aurreneko pujaketa jasan ondoren, behin-behingo, banatuta gelditu ziren, sexteo-epea igarotzeko prest. Hurrengo sei egunetan, «meiorako» proposamenak egiteko aukera du

edonork, beti ere eskaintza seiren batean hobetuz eta behin behineko esleipeneko balioaren %10 fidantza modura ordaintzen badu. Gaur 19:00etan bukatzen da horretarako epea. Bihar, ordu berean, sexteoa jasan duten postuekin behin betiko enkantea eginen dute. Gainerakoak, bere horretan geldituko dira lehen saioko esleipenduntzat.

Lehen saioan, aurreko larunbatean egin zen saioan, alegia, postuak «gutxi jota» gelditu ziren eta biharko saioa biziagoa

izatea espero liteke, iazkoa go-goan izanda. Aurtengo saioetan, gainera, pujatzaileek postu bakoitzaren martxa nola doan jarraitzeko, batzar aretoan jarriko duten pantaila batean ikusiko dute: «Unean-unean, tanto bakoitza gehitu ahala, postuen balioa zertan den jakinen da», jakinarazi dute Aresoko Udaletik.

Ehiza postu hauekin lotuta, horietara joateko bidea ere aurtun hobetu egin dutela adierazi zuten, bestalde; Urkiagako pista, hain zuzen ere.

LEITZA ▶ GIZARTEA

## Arratsalde beteko ekitaldiak prest dituzte biharko, Atekabeltz Gaztetxean

Diapositibak, afaria, musika, edozeinentzat moduko egitaraua, hara

J. ASTIBIA

Berriz ere larunbata iristear dago, eta irailaren aurrenetik hartu duten martxari jarraituz, Atekabeltz Gaztetxean prest dute biharko eguneko ere. Oraingoan, arratsalde bete iragarri dute, gainera.

Arratsaldea diapositiba emanaldiarekin hasiko dute, 19:00etan, Hego Amerikako irudiak erakutsiz. HITZARI adierazi diotenez, herriko gazte batetik botako omen ditu, hau nonbait lurralde haietan hilabete

batzuk egina da, eta bere egonaldi hartako irudiak ez ezik, kontakizuna ere eginen omen du. Ikuskizun hau «ikusgarria» izanen dela adierazi dute.

Afalorduan, noski, afaria egitekoak dira, baina «afari autogestionatua», alegia, norberak berea eramanez. Mahaia eta aulkiak antolatzaileen ardura izanen dira. Eta, ondorenerako eguna osatzeko, musika saioa izanen da, «lasaia, entzutekoa, patxadaz egotekoa», ziotenez. Kasu honetan, kantari bakarlari bat da etortzekoa, eta bere

kantu propioak tartean direla, kontzertua emanen du, gitarra lagun duela.

Gazteentzat aukera bat eskainiz datoz Atekabeltzetik.

### ATEKABELTZAN ▶

BIHAR.

19:00etan. Diapositiba emanaldia.

21:00etan. Afari autogestionatua.

Ondoren. Musika.

LEITZA ▶ KIROLAK



Aurrerakoak beroketa ariketak egiten. J. ASTIBIA

## Arerio ezaguna izanen du Aurrerak biharkoan

Aralar Mendi taldearekin jokatu du, aurtun Salazarrek prestatzen duen taldea

J. ASTIBIA

Honetakoan talde ezaguna hartuko du Aurrera futbol taldeak Arkixkilen: Uhartea Arakeleko Aralar Mendi taldea.

Ezaguna bi arrazoigatik. Iazko denboraldian Lurraldeko Lehen Maila honetan talde berean jokatzeko egokitu zitzaenez, elkar ongi ezagutzen dute; baina, gainera, aurreko denboraldian Aurrerako entrenatzaile izan zen Martin Salazar orain Sakanako taldearekin ari da lanean. Horra bigarren arrazoi. Hain zuzen ere, leitzarrentzat lagungarri da, «uhartearrek nola joka lezaketen ideia bat ematen digulako», etxekoek HITZARI

adierazi ziotenez, «baina, hark ere ongi ezagutzen gaitu gu, eta...», erantsi zuten jarraian. Edozein moduz, beren lehen-go entrenatzailearen aurka jokatzeko indarra handituko die: «Gogoa ere gehiago piztzen digu horrek».

Bestalde, aurreneko partiduan belaunean izan zuen bihurreragatik Olanok ezin izanen du jokatu, «beste 4 bat astetan edo», ziotenez.

Eta jakitera eman zuten, Aurrerak etxeko partiduak normalean igandez jokatzeko baditu ere, oraingoan larunbatarekin eginen du, «jokalariak eskatuta». Beraz, biharko jokatu dute partidua, 17:30ean zehazki.

EUSKARA ▶

## Nafarroa Oinezarako laguntzaileen beharra

J. ASTIBIA

Urriaren 16an Altsasun eginen duten Nafarroa Oinezarako borondatezko laguntzaileak eskatu dituzte, bai txosnetan aritzeko, bai segur-

tasuneko lanetan (zaintzan, trafikoa bideratzen...) aritzeko. Ordu batzutan esku bat botatzeko prest dagoenak Leitzako Karrape Irratira dei dezake (948 61 09 14) edo IKA euskalgira (948 61 07 76).

hilberriak ▶

✠ Tomas Zubillaga Zubillaga jauna  
(Josefa A. Karreraren alarguna)

Heregun hil zen, 89 urte zituela,  
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

GU GUZTIAN AITONA ZERURA BAZOAZ / MEREZI ZENDUN ETA GOZATU HANGOAZ, / ZUK ERAKUTSITAKOAK EGITEN BAGOAZ / GOGORATUKO GERA GU ERE JAINKOAZ.

Zure bilobak: Jon Ander eta Alazne, Aloña eta Mikel, Oihana eta Koldo; Igor eta Alaitz, Iker eta Nahikari; Nagore eta Enrike, Laida eta Oskar; Maitane eta Ander; Amaia eta Jon; birlobak: Erika; Eneko eta Urki; Manex eta Beñat.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzete GAUR, ostirala, arratsaldeko ZAZPIETAN, JESUSEN BIHOTZA parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Arno, 18-4 D  
oharra ▶ Gorputz beila Tolosako Funeraria Vascongada  
Beilatokian egongo da, gaur goizeko 10:45ak arte.

VILLABONAN, 2005eko irailaren 23a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Zeinu hizkuntza tailerra eta erakusketa, komunikazio oztopoi buruz. 10:00etatik 14:00etara, Kultur Etxean.

**Tolosa.** Iturrija jubilatutako elkarteak irteera antolatutako San Migelera hilaren 29an. Izen-ematea, elkartean (Euskal Herria plaza).

**Villabona.** Eresargi Ttipik haur abeslariak behar ditu. Izena eman nahi duenak Kultur Etxera jo behar du gaur, 17:30etik 19:00etara.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Murtxe Etxeberriaren lanak. Hilaren bukaera arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

**Tolosa.** Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte, Lanbroa tabernan.

**Tolosa.** Rosa Maria Ruizen margolanak, Sorron enmarkazio dendan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Ibarr.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15  
**Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre (107,5; 101.2 FM)**

11:00. 14:00ak arte, *Tolosaldeko Ahotsa*. Eguraldia, Hitzaren errepasoa, albisteak, oharrak...  
11:30. Asteburuko agenda zabalda. Tartean, Kaxianori Lizartzak egingo dion omenaldia.  
12:00. Irurako sanmielak 2005.  
12:30. Gipuzkoako EHNE sindikatuko lagunekin solasaldia.  
13:00. *Lekutuko koloreak* irrati nobela.  
13:10. Lehiaketa eta disko eskainiak.  
19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotsa* magazinaren errepikapena.  
22:00-23:00. *Arkako Show* saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iriztien erantzukizunik.

# Herritako istorioak

**HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶** Entzierroak, ezbeharrak eta oroitzen jasetzen dituzte argazkiok; gaur duzue azken eguna irudiak bidaltzeko



**SESMAKO ENTZIERROA ▶**

**Jose Angel Artutxa (Tolosa).** Udako oporraldian Nafarroan aterata du argazki bitxi hau Jose Angel Artutxa tolosarrak. Hala dio hartutako irudiari buruz: «Argazki hau Nafarroako Sesma izeneko herrian aterata dago. Abuztuan dira herriko festak, eta aurtengo entzierro batean aterata nuen».



**RIBADELAGO ▶**

**Ina Bengoetxea (Tolosa).** «Argazki hauek desagertu zen Ribadelago herrian aterata daude, Zamoran. 1959an urtegi horra hautsi zen, eta kanpandorrera igo zirenak bakarrik salbatu ziren. Orain hondamendi haren oroitzapenak, etxeetako harri batzuk eta elizako dorrea, ikus daitezke soilik. 150 pertsona hil ziren».



**PAIMPONT ▶**


**Jon Etxeberria (Hernani).** Hernanitik ere iritsi zaizkigu irudiak bigarren lehiaketa honetarako. Jon Etxeberria hernaniarrak bidali digu hemen argitaratzen duguna. Hark azaldu duenez, «ikusten duzuen argazki hau abuztuan Bretaniako Broceliande basoan ateratakoa da, Paimpont herrian».

**AGURRAK ▶**




**ZORIONAK**

Berandu xamar baina zorionak, bikote. Beste urte asko eta asko elkarrekin pasa ditzazuela. Ebekoen partetik.



**URTE ASKOAN**

Garikoitz Zeberio Alonso. Gaur 5 urte. Zorionak Lizartza eta Ibarroko familiaren partetik.



**ZORIONAK**

Albert eta Arantza (Amezketeta). Gaur 5 urte elkarrekin. Maialen.

**HITZA,** zorion agurren tartea  
HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 beheka TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa LEITZA  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



**bidali zure argazkiak!**

**hitza** argazki lehiaketa

**NORA BIDALI**  
Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA  
Nahi izanez gero argazkiak ekar daitezke Tolosako HITZAren egoitzara  
**Oinarriak www.tolosaldeko-hitza.info**  
webgunean eskura ditzakezu

1. SARIA: Bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan.
2. SARIA: Leitzako Arakindegia jatexean afari eder bat bi lagunentzako.
3. SARIA: Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prismaoak.

Argazkien erakusketa egingo du, Tolosako ALDEZAHARRA elkartek






IRATXE ETXEBESTE

## KIROLA ETA AISIA, ERRAZ

Gune berria du Tolosaldeak kirolaz eta aisialdiaz gozatzeko: Usabal kirol eta aisialdi gunea





## PROIEKTUTIK, ERREALITATERA

2003ko apirilaren 7an, Usabal kirolguneko lanak hasi zituztenetik, itxura hartu du eraikinak

Bi urte eta erdi joan dira Usabal kirol eta aisialdi guneko lanak egiten hasi zirenetik. 2003ko apirilaren 7an hasi zituzten bertako lanak, eta Guillermo Ibarгойen SA enpresak izan du ardura hori. Bertako langile eta Usabal kirolguneko obra arduradun Igor Aldanondoren hitzetan, «gogorra bezain gozoa» izan da zeregin horretan aritzea, hasiera-hasieratik «tentsio batean» jardun behar izan dutelako langile guztiek. Orain, ordea, behin Usabalek itxura hartu eta erabiltzeko moduan dagoenean, pozarren dagoela dio, eta egin dako ahalegin guztiak merezi izan duela.

Aurretik zehaztutako epeak errespetatu bakarrik ez, gainditu ere egin dituzte langileek urteotan, eta hori oso zaila dela aitortu du Aldanondok: «Erritmo bizian hasi ginen, eta Udalak mantendu egin nahi zuen erritmo hori, zehaztutako epeen aurretik zabaldu nahi zuelako kiroldegia». Usabal kirolgunean buru-belarri aritu den lan-talde osoari esker gertatu da hori bere aburuz, langileetatik hasi, arkitekto tekniko, arkitekto eta udal arduradunetaino, «guztiak egin dutelako lan bikaina elkarlanean». Horien guztien «meritua» izan omen da Usabal altxatu, eta egun duen itxura hartu izana.



Goiko argazkian, egun Usabal kirolgunek duen itxura; behean, 2004ko ekainean zuena. I. ETXEBESTE - L. MONTES

Ahalegin horretan, ordea, dena ez da hain erraza izan, eta bateko hotzak, besteko erai-kuntza grebak zertxobait atzeratu zuten kirolgunea zehaztutako epeetan bukatzea.

Aurtengo ekainerako zabaldu nahi zuten kirolgunea, eta irailean ireki dute azkenean. Hala ere, «irailean askoz gehiago entregatu da ekainean entregatzekoa zena baino». Adibidez, ekainerako bi igerilekuak zabaltea aurreikusten zuten hastapen batean, eta

irailean futbol zelaia, fitness aretoa eta Usabal inguruko urbanizazioa ireki dituzte bi igerilekuez gain. Hidromasaia gunea, bestalde, 2006ko ekainerako amaitzea zegoen iragarrita, baina datorren astelehene-tik aurrera erabiltzeko moduan izango da.

Obra arduradun gisa asko zaindu du Aldanondok Usabal jardun behar zuten gremio-etako langileak ingurukoak izatea. «Gisa honetako obreran joera dago Madrilgo enpresa

handietara jotzeko, baina guk ez dugu politika hori jarraitu; oso garbi genuen Gipuzkoako enprekin aritu behar genuela, eta horregatik lortu dira emaitza hauek, guztiek ere haiena balitz bezala sentitu dutelako proiektua».

Horren harira, Aldanondok dio lanean aritu diren guztientzat «enblematikoa» izango dela Usabal kirol eta aisialdi gunea betiko. «Obra hau egitea traineru batean egotea bezala izan da; guztiek norabide bere-

an egin dugu arraunean, elkarlanean». Politikoen, arduradunen, teknikoeren eta langileen artekoa izan da, hain zuzen ere, elkarlan hori.

### «Seme bat balitz bezala»

Igor Aldanondo tolosarra da izatez, eta horrek Usabal kirolgunea eraikitzeko bidean mesede egin duela aitortu du berak. Izan ere, «erronka pertsonal» bat bezala hartu du kirolgunea eraikitzea, egin beharreko obra herrian bertan egoitegatik «obligazioa handiagoa» delako, eta, batez ere, Tolosan, ziurrenik, «datozen 50 urteotan egingo den obrarik handiena izango delako» Usabalekoa.

Harrotasunez begiratu diezaiokete eraikinari bertan lanean jardun dutenek. Eta, hain zuzen, halaxe egiten dute. «Hasiera batean erronka irakargarria zen niretzat; orain seme bat bezala ikusten dut, detaile bakoitzaren atzean zer dagoen, zer gertatu den jakin badakidalako».

Usabal «istorio txikiz betetako eraikina» da Aldanondorentzat. Hala ere, «barruan bizitza dagoenean, bakarrik bizi denean» izango omen da politagoa Usabal kirol eta aisialdi gunea ikustea. Hemendik bi urtera edo.

HAINBAT DATU ▶

Usabal kirolgunea eraikitzeke bidean zerikusia izan duten ezaugarri batzuk daude hemen bilduta:

**OBRA**

**Hasiera.** 2003ko apirilaren 7an hasi ziren Usabal kirolguneko lanak.

**Bukaera.** Kontratuaren arabera, 2006ko ekainean bukatuko dituzte kirolguneko lan guztiak. Hala ere, sei bat hilabetez aurreratuko da obra, itxura guztien arabera.

**Langileak.** Guztira, bi urte eta erdiotan Usabal kirolgunetik pasatu direnak 800-900 izan dira; elkarrekin, gehienara ere 160 langilek jardun dute.

▶ Txanda ezberdinak egin dituzte langileek; egunez eta gauzez aritu dira lanean.

▶ Bertan aritu diren langile, enpresa eta azpikontratatu guztiak Euskal Herrikoak izan dira; «horregatik lortu dira emaitza hauek, guztiek ere erronka gisa hartu dutelako Usabal kiroldegia eraikitzea».

▶ Langile guztien lana koordinatzea errazagoa izan da gisa horretako beste obra asko baino, Usabal kirolgunea herritik kanpora egonda, leku aldetik arazorik ez dutelako izan: «Batzuk edifizioa egiten ari ziren bitartean beste langile batzuk futbol zelaia ari ziren egiten, besteak igerilekua...».

**Aurrekontua.** Hilabete bakarrean 2 milioi euroko

obrak egitera heldu dira Usabal kirolgunean.

**Oztopoak.** Bateko eraikuntza grebak eta besteko negu gorriak bi-hiru hilabetez atzeratu ditu lanak.

▶ Greba: Bi hilabetez geldirik egon ziren langileak; «asko kostatu zitzaigun lanari uztea, ordura arte erritmo bizia generamalakoa, eta greba apurtzean are gehiago kostatu zitzaigun lanari ekitea, erritmo motelagoan hasten zarelako, ezinbestean».

▶ Hotza: Eraikuntzan, temperatura jakin batetik behera ezin da lanik egin, langileen osasunean eragin zuzena duelako hotzak, batetik, eta eraikina egiteko beharrezko diren elementuei —porlana, mortairua...— kalte egin diezaiekelako. Aurtengo neguan iaz baino 35 lanegun gehiagotan izan dira 5 graduz azpiko tenperaturak.

**EZAUGARRIAK**

**Eskualde mailakoa.** 20.000 biztanle inguru ditu Tolosak, eta Tolosaldeak, berriz, bikoitza: 40.000 inguru. Horiei guztiei zerbitzu egokia emateko prestatuta dago Usabal kirolgunea.

**Handitzeko aukera.** «Paraje ikusgarrian» dago Usabal kirolgunea, eta etorkizunean ahal izango zaie, handitzeko aukera badagoelako egon.

**IGOR ALDANONDO ▶ USABAL KIROLGUNeko OBRA ARDURADUNA**

«Traineru batean egotea bezala izan da obra hau egitea; guztiek norabide berean egin dugu arraunean, elkarlanean»

«Ziurrenik, Tolosan datozen 50 urteotan egingo den obra handiena izango da Usabal kirolgunea»

**Bigarren fasea, aurreratuta**

Usabal kirol eta aisialdi guneko lehen fasea erabat amaituta dagoela egingo dute, bihar, inaugurazio ekitaldi ofiziala. Bigarren faseko lanak hasita daude honezkerok, baina kirolgunea erabat bukatzeko hainbat gune geratzen dira. Hala eta guztiz ere, Tolosako Udala-ekin hitzartutako epea baino lehen bukatuko dute eraikina eta bere ingurunea. 2006ko ekainean amaituta behar zue- na aurreratu egingo da, beraz, eta obrako arduradunek uste dute aurtengo abenduan edo datorren urteko urtarrilean izango dela Usabal kirolgune osoa amaituta. Zehazki, hidromasaia gunea, squash, padel eta arku tiro pistak eta bigarren kantxa eta bere alda-



Bigarren kantxan lanean. i. e.

lak dira bukatzeko falta direnak. Rokodromoa ere bai, baina hori atontzea lehiaketara aterako du Udalak. ◀

**ANDONI IMAZ ▶ TOLOSako UDALeko KIROL ZINEGOTZIA**

«KIROLAREKIKO KULTURAN BETI IZAN DA AITZINDARI TOLOSA»

Usabal kirolgunearekin horri eusten diotela esan du futbolari ohiak

Lanean buru-belarri aritu da azken bi urte eta erdiotan: Usabal kirolgunetik udaletxera eta udaletxetik Usabalera. Andoni Imaz Tolosako Udaleko Kirol zinegotzi eta futbolari ohiak ger-tu-gertutik jarraitu ditu kirol-gune berriko lanak, eta eraikuntza egiten hasi zireneko oztopo, arazo eta larritasunak atzean geratu direla aitortu dio HITZARI, proiektu handi bezain beldurgarri hura zabalik eta bukatzeko bidean delako jada.

**Gipuzkoako instalazio handienetakoa omen da Usabal...**

Dituen 16.000 m<sup>2</sup> estaliek in handiena da, bai. Lehen leku ezberdinetan zeuden instalazio guztiak batu egin dira, eta definitu gabe utzi ditugu beste 525 m<sup>2</sup>. Horri kanpoaldeko instalakuntzak gehitu behar zaizkio: estali gabeko igerilekua, belar artifizialeko futbol zelaia eta solariuma, kasu.

**... baita osoenetakoa ere.**

Arkitektonikoki lau ezaugarri ditu: argitsua da, bi kantxa ditu bat bestearen gainean, hamar kaleko igerilekua du eta inje-nieritza aldetik punta-puntako osagaiak jarri dituzte: motorrak, filtrajea... Ikusgarriak dira sotoan dauden instalazioak. **Instalakuntza modernoa egin nahi izan duzue. Zergatik?**

Kirolarekiko kulturaren beti izan da aitzindari Tolosa. Berazubiri jarri zuten lehen atletismoko pista, Berazubiko kiroldegia lehenetarikoa izan zen, Igarondoko igerileku olimpikoa aurre-na izan zen... Aitzindari izate horri eusten diogu Usabal kirol-gune berriarekin, hidromasaia gunea eta 25 metro luzeko eta hamar kaleko igerilekua inon gutxi aurki daitezkeelako. **Zenbaterako aurrekontua izan du Udalak proiektua egiteko?** Guztira, 24 milioi euro beharko dira lehen eta bigarren faseak aintzat hartuta kirolguneko lan-ak egiteko.

**Zehaztutako epeen barruan aritu zarete lanean, ez al da hala?**

Iazko eraikuntza grebak bi hilabetez geratu zituen lanak, eta otsaileko hotzengatik beste hiru astez egon ziren langileak lana egin ezinik. Hasieran ekai-nerako zegoen iragarrita lehen fasea bukatzea, baina irailera atzeratuko zela esan ziguten, eta bete egin dute esandakoa. Gisa honetako obra egiteko epeak errespetatu izana txalotzekoa da. Gainera, bigarren fasea martxorako amaitzea dago



IRATXE ETXEBESTE

hitzartuta, eta badirudi aurre-rratu egingo direla.

**Zergatik egin kirolguneko bazkide?**

Kirola egitea osasuna zaintzea delako; kirolguneak mila au-kerak ematen ditu horretarako. **Garestiegia ote den entzuten da kalean...**

Eraikina ezagutu aurretik esa-ten zuten hori herritarrek. Behin ezagutu dutenean eta zer aukera ematen dituen ikusi dutenean iritiz aldatu dute.

**Ate irekien jardunaldiak la-gundu al du horretan?**

Jendeak bazuen gogoia kirol-gune berria ezagutzeko, eta ordaindu gabe egin ahal izate- garrantzitsua zen guretzat. Uste dut bete-betean asmatu dugula ekimen horrekin.

**Zergatik eskualde mailako kirolgunea egin?**

Eskualdeko buru izaki rol bat bete behar du Tolosak. Ez kirol-lean bakarrik; klinika, epaite- gia... eskualde mailako zerbi- tzuak dira. Ikuspegi globala behar, eta eskualdeko proiektu- a egin genuen. Foru Aldun- diaren laguntza jasotzeko ere beharrezkoa zen hala egitea.

**AURREKONTUA**

«Guztira, 24 milioi euro beharko dira lehen eta bigarren faseak aintzat hartuta kirolguneko lanak egiteko»

**Kirol praktika bultzatuko al du Usabalek?**

Dudarik gabe. Elkartek pila bat ditugu herrian, askotariko ki-rola egiten dutenak, gainera. Tolosan beti kirol instalakun- tzak eduki izanak egin du zile- gi hori. Ikusi besterik ez dago zenbat kirolari ditugun ingu- ruan punta-puntan ari dire- nak: Edurne Pasaban mendi- zalea, Xabi eta Mikel Alonso, Gari Uranga, Igor Jauregi eta Loren futbolariak, Kepa Caba- llero patinatzailea, Xabi Fer- nandez regatista, Abraham Olano eta Jon del Rio txirrindu- lariak, Alfonso Azurza presta- tzaile fisikoa... Jendeak beti izan du eskualde honetan gri- na kirolarekiko, eta uste dut hala izango dela aurrerantze- an ere. ◀



# ARIKETA FISIKOA BULTZATZEN

### Usabal kirolgunea kudeatzen duen Kirolzer enpresak ahalagin berezia egiten du jendeak ariketa fisikoa egin dezan

Kirolzer izeneko da Usabal kirol eta aisialdi gunea kudeatzen arduratuko den enpresa. Gestio-erorkorra eskaintzen dio Tolosako Udaltzari: instalazioen garbiketa, mantenimendua, ekintzak antolatzea, begiraleen kontratazioa. Eta hori guztia behar bezala eramateko arduraraz Asier Martin Usabal kiroldegiko geroetean dago.

Villabonako Olaederra kiroldegian aritu izan da orain arte, eta Tolosakora pasatzea baldaketa handia izan dela dio betetik aurreko baino handiago delako, eta, bestetik, kiroldegia berria izaki, martxoan jarreza egokitu zailakoa. Bateko filosofia bera mantenduko du, hala ere, bestean: «Kirolzer enpresak garbi dauka herri-erretik ariketa fisikoa egitea bultzatu eta landu behar duela. Izan ere, ogizakiak bere orokorako erretik ariketa fisikoa egitea, eta Usabal kiroldegia askotariko kirolak

egiteko aukera eskaintzen du, ezberriak gabe. Kirolzer enpresak aurreikusitakoaren arabera, 6.000 eta 7.000 bazkide artean izango ditu Usabal kirolgunek bi urteren buruan. «Honez ere badira 1.500 bazkide berri eta pixkanaka handituz joango da kopuru hori». Usabal kiroldegiko erabilzaile guztiak ez dira abonatu izango, baina Martinen hitzetan, abantailak izango dituzte bazkide egiten direnak. «Kirolzer enpresak ahalagin berezia egingo duelako bazkideak zaintzeko». Esate baterako, abonatuak elerhentasuna izango dute bizi prezioa dagoenak eta ikastaroetan izena ematerakoan.

Antolatutako ikastaroen inguruan, oraingo oso onarritzeko eskaintza dituztela, baina etorkizunean eskaintza askaragiri handituko dela dio Martinnek: «Kiroldegiko erabilzaileek egindako eskae-

ren araberako ikastaroak antolatuko ditugu, eta urtarilla-edo izango da hori egiteko unean». **Harremanetarako egokia** Ariketa fisikoa egiteko aukera antolatzen ditu Usabal kirolgunek: «Norberak bere mailan egin ahal izango du, gainera: gogorragoa, arinagoa...». Ongizatea gertatzen ogero eta hedatuz dagoenez, bestalde, hidromasaia guneak arrakasta izango duela ikusten da. Baina atsedean hartzeko eta ariketa fisikoa egiteko gaitasuna, kiroldegia berritzea, hidromasaia guneak arrakasta izango duela ikusten da. Baina atsedean hartzeko eta ariketa fisikoa egiteko gaitasuna, kiroldegia berritzea, hidromasaia guneak arrakasta izango duela ikusten da.



Ariketa fisikoa egiteko garrantzia handia du izan, MAITE ERREKOTE

alegia» Bere esanetan, erabilzaileek elkarren artean nola jarduteko diseinatuak diren ariketaz gain, kiroldegia berritzea, hidromasaia guneak arrakasta izango duela ikusten da. Baina atsedean hartzeko eta ariketa fisikoa egiteko gaitasuna, kiroldegia berritzea, hidromasaia guneak arrakasta izango duela ikusten da.

## BI GUNE ETA HAMAIIKA ZERBITZU

### Ere mu lehorra eta bustia ditu Usabalek gune estalian eta kanpoaldean

Bi gune ezberdin ditu Usabal kirol eta aisialdi gune berriak, oso banatuta: bustia edo hezea eta lehorra. Horrez gain, esan behar da eremurako bazkide estaliak direla, eta kanpoaldean daudela beste batzuk. Hamaika zerbitzu dituzte herri-erretik aukeran horietako batzuk.

Gune hezean, hamar kaleko igertlekua, igertian erakusteko igertlekua, hidromasaia gunea —160 m<sup>2</sup> ditu erakusteko gunea, eta bi sauna gela, baporezko bainua, termak eta hidromasaia daude bertan— eta kanpo-ko igertlekua daude. Datoren asteen, edo, beranduena hurrenean zabalduko dute eremu hori.

Lehorrean, berriz, muskulazio gela, belar artifizialeko futbol zelai handia eta aldoan bolibaloa, kirol antzerkiak bi kaxta, bi squash pista, padel pista, tatami, 18 metroko toledromo eta boulderra daude. Horietako batzuk erabilzeko moduan dira honezkerako, baina beste batzuk, hiritik daude oraindik, bertako lanak bukatzeko dituztelako.

Asier Martinen hitzetan, Usabal kiroldegiko igertlekuaren proiektu ez da inon, eta hamar kale itateak aukera ematen die herri-erretik eta klubetako kideei zerbitzu hori berean erabilitzeko. «Gauza bera gertatzen da gainetako instalazioekin: bi kaxta izanik, uzartu ditek hertziko klub ezberdinetako partaideak



Besteok beste, hidromasaia gunea dago eremu hezean. MAITE ERREKOTE



Belar artifizialeko futbol zelaiaren eremu lehorreko guneetako bat da, MAITE ERREKOTE

eta kiroldegiko bazkideak arto horietan une berean aritzen». Martinen esandakoren arabera, eskaintako zerbitzu guztiak kiroldegia omen da, orokor, kiroldegiko guztiak gaitasun berean. Bestalde, eta azken urteetan

## JARDUERAK ▶ URTEKOAK ETA HIRUHILEKOAK

Oraingoz hauek dira antolatutako ikastaroak; urtariletik aurrera gehiago izango dira.

**URTEKOAK, HELDUENTZAT**  
**Iraupena.** Urriaren 31k ekainaren 23ra.  
**Jarduerak.** Mantenimenduko gimnastika—astelehen, asteazken eta ostiralean; 09:00etatik 10:00etara, 19:30etik 20:30etara eta astearte eta ostegunetan 20:30etik 21:30etara—; aerobika—astelehen, asteazken eta ostiralean 08:00etatik 09:00etara, 09:00etatik 10:00etara, 19:30etik 20:30etara eta 20:30etik 21:30etara—; prestakuntza fisiko intensiboa—astelehen, asteazken eta ostiralean, 19:30etik 21:00etara— eta yoga—astearte eta ostegunetan 09:30etik 11:00etara eta 20:00etatik 21:30etara—.

**Prezioak.**  
▶ Bazkideek: mantenimenduko gimnastika hiru egunetan, aerobika, prestakuntza fisiko intensiboa eta yoga: 54,73 euro.  
▶ Bazkide ez direnek: mantenimenduko gimnastika bi egunetan: 36,49 euro.  
▶ Bazkide ez direnek: mantenimenduko gimnastika hiru egunetan, aerobika, prestakuntza fisiko intensiboa eta yoga: 136,85 euro. Mantenimenduko gimnastika bi egunetan: 91,23 euro.

**URTEKOAK HAURRENTZAT**  
**Iraupena.** Irailaren 27tik ekainaren 17ra.  
**Jarduerak.** Aerobika—8 eta 11 urte bitartekoentzat, astearte eta ostegunetan 17:30etik 18:30etara— eta gimnastika erretik—5 eta 12 urte bitartekoentzat; eguna eta ordulegia zehazteke dago oraindik—.

**Prezioak.**  
▶ Bazkideek: haurboon igertia 54,73 euro eta igertia 45,77 euro.  
▶ Bazkide ez direnek: haurboon igertia 136,85 euro eta igertia 114,77 euro.

**URTEKOAK HAURRAK**  
**Iraupena.** Urriaren 31k abenduaren 23ra; urtarrilaren 9tik martxoaren 31ra eta apirilaren 31k ekainaren 23ra.  
**Jarduerak.** Haurboon igertia—6 hileletik 3 urtera larunbat eta igandetan 10:00ak eta 13:00ak bitartekoa— eta 3 eta 10 urte bitarteko igertia—astelehen eta asteazkenetan eta astearte eta ostegunetan, arnasaldia— 6 eta 10 urte arteko haurrek maila froga egin beharko dute ikastaroa hasi aurretik; dute zehazteke dago.

**Prezioak.**  
▶ Bazkideek: haurboon igertia 54,73 euro eta igertia 45,77 euro.  
▶ Bazkide ez direnek: haurboon igertia 136,85 euro eta igertia 114,77 euro.



KIROL INSTALAKUNTZEN KUDEAKETA

**Kirolzer**

Usabal, 25A • TOLOSA • Tel.: 943 536 400

**Kirol jarduera osasuna, ongizatea eta bizi kalitatea da, zure aisialdia beteko duena.**

**USABAL**  
TOLOSA

## Abonatu izateko egin beharrekoko

Usabal kiroldegiko harreraren izango duzue abonatu izateko informazio guztia, eta baita 943 53 64 00 telefono zenbakira deituta ere. Izena emateko orria beteta eraman behar da kiroldegira, nor beraren argizkiarekin batera. Abonatuak eskubidea dute instalazio arlo eta zerbitzu guztiak bereziki gabe erabilitzeko, gehiago ordaindu gabe.

Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 22:00etara, larunbatetan, 08:00etatik 20:00etara eta igandean eta iaiegunetan, 09:00etatik 14:00etara izango da zabalik kiroldegia. ◀

**TECHNOGYM**

The Wellness Company™

**ZORIDAK TOLOSA!**

**USABAL** Kiroldegiko berriaren bidea gosamena eta osasuna izateko zure elizguru guztia!

[www.meqsport.com](http://www.meqsport.com)

JOXE JOAN GONZALEZ DE TXABARRI ▶ GIPUZKOAKO AHALDUN NAGUSIA

# «Eskualdeek azpiegitura egokiak behar dituzte denek aukera berak izateko»

«Tolosaldeko herritarrek makina bat aldiz erakutsi dute hainbat ekimen sortzeko gaitasuna; erakundeei dagokigu horiek sustatzea», dio Ahaldu Nagusiak

Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzara hitzarmena sinatu zuten Usabal kirol eta aisialdi guneko obrak egiteko. Modu horretara errekursoak optimizatzen direlakoan, eskualde mailako izaera du kirolgune berriak. Izan ere, «Diputazioaren eta edozein administrazio demokratikoren ezinbesteko betebeharra» da hori. Hala dio, behintzat, Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarririk. Harekin aritu da HITZA solasean, herriko proiektu sendoena izan daitekeenari buruz duen iritzia jakite aldera. **Bihar egingo dute, Tolosan, Usabal kirol eta aisialdi guneren inaugurazio ekitaldi ofiziala. Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzara hitzarmena sinatu zuen Udalarekin bertako inbertsioak gauzatzeko. Zer dela eta?**

Legealdiaren hasieran esan genuen gure proiektua *Gipuzkoa Hiria* egitea zela. Hau gauzatzeko, helburua egi bilakatzeko, ezinbestekoa da lurralde osoaren garapen orekatua eta gizarte kohesioa sustatzea eskualde guztietan. Ondorioz, eskualdeek azpiegitura egokiak behar dituzte, gipuzkoar guztiak, Tolosaldekoak izan, Arrasatekoak, Zestoakoak edo hiriburukoak izan, guztiak eskubide eta aukera berdinak izateko eta ongizate maila bermatzeko. Jakina da horretarako erakunde arteko lana dela bide egokiena, eta horren adierazgarri da Usabal bera. Tolosako Udala eta Gipuzkoako Aldundiaren arteko lan horren adierazgarri.

**Foru erakundearen Inbertsio Plan Berezian sartu da proiektua. Gipuzkoako aurrepenaren eta garapenaren alde Foru Aldundiak herritar guztiak duen konpromisoaren baitan ulertu behar al da hori?**

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero berresten du bere konpromisoa gipuzkoar guztiak eta bere ongizatearekin. Aurrekontu Orokorrek dira konpromiso honen adierazgarri. Baina, horrez gain, ahalegin berezia egin nahi izan dugu Inbertsio Planarekin, hau da, Foru Gobernuak aparteko 140 milioi euro jarri ditu aparteko



IRATXE ETXEBESTE

## USABAL

«Lehen mailako instalakuntzak eta kirola egiteko tresna modernoak jartzen ditu herritarren esku»

129 proiektutarako. Apartekoak diogu, ohiko aurrekontuek jasotzen dituzten inbertsioei gehitzen zaielako. Ez da ahaztu behar Aparteko Inbertsio Planaren arabera, Aldundiak 2.254.538 euro inbertituko dituela aurten Usabalgo kiroldegian ez ezik, beste proiektu batzuetan ere. Eta ohiko Aurrekontu Orokorrenari begiratuz gero, gizarte politikan, bideguztietan, ur horniduran eta beste hainbat alorretan ia 7 milioi euro Tolosaldeko eskualdean. **Aparteko Inbertsio Plana**

## AURREKONTUA

«1.100 mila euro jartzen ditu Foru Aldundiak; 2005ean 500.000 euro eta beste 600.000 euro datozen bi urteetan»

**eginkizun nagusia omen da Gipuzkoa Europako hiri handien pare jartzeko. Ahalegin horretan, zer onura ekar ditzake Aldundiak diruz babesitu duen Usabal kirolguneak Tolosaldean?**

Bistakoa da. Usabalek lehen mailako instalakuntzak eta kirola egiteko tresna modernoak jartzen ditu Tolosaldeko herritarren esku. Gainera, hainbat ikastaro ere antolatuko dira gizarte sektore ezberdinetzat, ikasleentzat, langileentzat, adinekoentzat... Aukerak

ez dira faltako gustukoena duzuna aukeratzeko. Eskualdean bertan, eskualde osoari begira, Europako hiri handi batek eskaini diezazukeen azpiegitura da.

**Zenbateko aurrekontua du Foru Aldundiak Usabal kirolgunerako?**

Guztira, Aparteko Inbertsio Planaren eskutik, 1.100.000 euro jartzen ditu. 2005. urtean 500.000 euro eta beste 600.000 euro datozen bi urteetan. Apustu garrantzitsua izan da. Gipuzkoako igerileku zaharrenek zituen Tolosak, duela 30 urte-edo eraikitakoak; orain, aldiz, modernoenetakoak. Adibide bat besterik ez da Usabalek askoz gehiago eskaintzen baitu.

**Usabal kirolgunea, Apatta-Erreka industrialdea... Gipuzkoa hiria kontzeptua garatzeko bidean, zer aurrerapauso eman ditzakete gisa horietako proiektuek?**

Zuk aipatu dituzun Usabal eta Apatta-Errekekin batera Leidor ere kontuan hartu behar da, kultur azpiegitura honentzat konprometituta baititugu 1.470.000 euro eta hau ere aparteko proiektutzat jo genezake. *Gipuzkoa Hiria* kontzeptua garatzeko bidean behar-beharrezkoa da gipuzkoar guzti-guztien eskubide eta aukera berdintasuna bermatzea. Eta nola lortzen da hori? Azpiegiturak norbera bizi den tokitik ahalik eta gertuen eskainiaz, besteak beste. Azken batean azpiegitura eta zerbitzuak egokiak dituzten herriak, eskualdeak, bizitza sozial propioa duen esparruak bihurtzen dira. Tolosakoek eta Tolosaldeko herritarrek makina bat aldiz erakutsi dute hainbat ekimen sortu eta aurrera eramateko gaitasuna. Horra abesbatzen lehiaketa, txotxongilo jaialdia... Erakundeei dagokigu herritarren iniziatibak babestu eta sustatzea.

**Eskualde ikuspegi batetik egindako proiektua da Usabal kirolgunea. Zentzu horretan, errekursoak optimizatzen direla esan daiteke...**

Bai, eta benetan sinesten dut hori dela, gainera, Diputazioaren eta edozein administrazio demokratikoren ezinbesteko betebeharra. Hori zor diogu,

## Gertutik ikusi eta gero

Joan den maiatzaren 13an izan ziren Gipuzkoako Ahaldu Nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarririk eta Gipuzkoako Gizarte eta Erakundearen Harremanetarako diputatu Fernando Tapia Tolosako eraikin garrantzitsuenak bisitatzen. Arretaz jarraitu zituzten biek Zerkausiko, Errotako, Apatta-Erreka industrialdeko eta Usabal kirol eta aisialdi guneko lanak eta egitasmoak, eta Tolosako Udalarekin elkarlanean aritzeko hartua duten konpromisoari heldu zioten. Tapiak hala zioen Usabal ikusi zuenean: «Luxua den instalazio bat izango duzue Tolosaldekoek, eta proiektu hori oso da baliaigarria, eskualde mailakoa delako». Inaugurazio ekitaldi ofizialean parte hartuko dute bihar; eraikina zabalik ikusteko aukera izango dute. ◀



Maiatzaren 13an, Usabalen. i.e.

milaka eta milaka gipuzkoarrei gure esku ongi administratzeko aginduarekin, zergak zuzen ordaindu ondoren, jartzen duten konfiantzari.

**Lehenengo maiatzean gertutik ikusi nahi izan zenituen kirolguneko lanak. Eraikuntza modernoa da; Gipuzkoako oso eta handienetakoa...**

Bisitaldi hartan, primerako aukera izan nuen Usabal eraikuntza bertatik bertara ikusteko, baita Apatta-Erreka industrialdea ere eta Tolosako Udalak eguneroko lanean aurrera darraizatan proiektuak. Orduan esan nuen, Usabal ikusi eta gero, ez nekielela Tolosan ala Bilbon negoen. Txantxak alde batera utzita, kirolgune hau une honetan Gipuzkoako handienetakoa izan daiteke, baina garrantzitsuenak zera da: Tolosaldekoek izan ditzaketen beharrei erantzuteko egokia dela guztiz. Ez daukat zalantzarik guztion onerako dela. Orain, Leidorren dugu gure hurrengo erronka. Zorionak tolosar eta Tolosaldeko herritar guztiak!

# GUINNESS ERREKORRAREKIN

Carlos Peña tolosarra 24 orduz jarraian igerian ariko da Usabalgo igerileku estalian marka lortu ahal izateko



Carlos Peñaren ahaleginarekin inauguratuko dute Usabal. L. MONTES

Carlos Peña kirolari tolosarrak Guinness errekorra lortu nahi du Usabalen, 24 orduz jarraian bizkarrez igerian arituta. Bihar izango da hori, eguerditik aurrera, Usabal kirol eta aisialdi guneko igerileku estalian. Ordu bete lehenago, ordea, eraikinaren inaugurazio ekitaldi ofi-

ziala egingo dute, eta bertan izango dira, besteak beste, Tolosako alkate Jokin Bildarratz, Gipuzkoako Ahdun Nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako diputatu Fernan-

Aldundiko Kiroletako Zuzendari Nagusi Iñaki Ugarteburu.

Zeharkaldi handiak burutu izan ditu Peñak igerian lakuak nahiz errekek zeharkatuz; horren adibide dira Mexikoko Chapala lakua, Italiako Garda eta Hungariako Balaton. Igerilekuan ariko den lehendabiziko aldia izango da biharkoa, ordea, eta bizkar igeriketari ekingo dio 12:00etan, igandean ordu berean amaitzeko. Guinness Errekorren Liburuan sartu nahi du tolosarrak gisa horretara. Hainbat tolosarren laguntza jasoko du Carlos Peñak bere ahalegin horretan, txandakatuz bere alboan igerian jardungo dutelako.

Horixe izango da, behar bada, inaugurazio ekitaldiko ekimen ikusgarriena, baina ez bakarra.

Izan ere, asteburu osoan makina bat kirol ekintza ezberdin burutuko dituzte Usabal kirolgunean. Peñak bere jardunari

ekiten dionean hasiko dira, adibidez, futbol 7 txapelketak belar artifizialeko zelaian, eta Tolosako neska-mutilak elkarren aurka ariko dira lehian. Ordu berean, futbol zelai txikian *La Bombonera futbola 3x3* partiduak hasiko dira, eta baita 3x3 saski txapelketak ere, barnealdeko kantxan.

Arratsaldean ere uneoro izango dira ekintzak. 16:00etan Tolosa CF taldeko jubenilen lehen taldea eta Alpetarrak ariko dira aurrez aurre, eta bi ordu beranduago Lurraldekako Bigarren Mailako Amarozen eta Axular Lizeoa. Futbol zelai txikian, bestalde, *La Bombonera futbola 3x3* ekimena izango da 16:30etik aurrera, txikienentzako beste hainbat ekimenekin batera; 21:00ak arte izango dira horiek guztiak.

Era berean, gimnasioan jarriko duten scalextric-arekin gozatzeko aukera izango dute hurrek 16:00etatik 20:00etara. Gazteek, berriz, 16:00ak eta 18:00ak artean izango dute aukera ekimen horretan parte hartzeko. Goiko terrazan ping-pong txapelketa izango da 18:00etatik 20:00etara.

Antolatutako ekintza guztietan parte hartzeko aukera izateaz gain, Usabal kirolguneko bazkide guztiek doakoa izango dute sarrera larunbatean kanpoko igerilekura, solariumera

eta gimnasioko aparatua dau den aretora sartzeko, 14:00etatik 20:00etara. Igandean, berriz, 09:00etan zabalduko dute kirolgunea.

## Igandean, beste hainbeste

09:00etan hasiko da igandeko ekitaldia, eta aurreko egunean bezala, scalextric-az gozatzeko aukera izango dute hurrek eta gazteek gimnasioan. Futbola hautatzen dutenek, oster, Tolosa CF-ko haurren eta Añoragakoen neurketa jarraitzeko aukera izango dute 09:00etatik aurrera. Ordu erdi geroago Tolosa CFko kadeteen eta Real Unionen norgehiagoka hasiko da zelai handian. Azkenik, Amarozen taldeko kadeteen 2. mailakoak ariko dira San Ignacioren kontra 12:00etan. *La Bombonera futbola 3x3* futbola zelai txikira itzuliko da 10:00etatik 12:00etara eta 16:30etik 21:00etara.

12:00etan Carlos Peñaren ahalegina txalotzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren guztiek, eta 17:00etan Aralar eta UPV-Araba saskibaloitza taldeen arteko partida izango da kantxan.

Igandean ere aukera izango dute bazkideek kanpoko igerilekura eta fitness aretora sartzeko, 20:00ak arte. Ordu horretan amaituko dira ekitaldiak.



**Guillermo Ibagoyen, S.A.**

Empresa Constructora



